

COVID-19 PANDEMIAREN ONDORIOZ SORTUTAKO PLANA

Ohar honen bidez *Arratia BHI* institutuak *COVID-19* pandemiaren ondorioz garatu duen plana helarazi nahi dizuegu.

1. Familiarekin komunikazioa

Dagoeneko sortuta dauden **Whatsapp** taldeen bidez egingo da. Mezurik iristen ez den kasuetan, tutoreari helaraztea eskatzen da.

2. Ikasleekin komunikazioa

Batetik, **Chromebook**ak utziko zaizkie ekipo informatikorik ez duten ikasleei, eta konexio arazoak dituztenentzako **konexio txartelak** erosiko dira.

Bestetik, **Classroom** plataforma izango da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ardatza, baita komunikazio bidea ere. Agertokiaren araberako erabilera izango du Classroom plataformak:

a) Lehenengo agertokian

Konfinatuta dauden ikasleei Classroom bidez bidaliko zaizkie lanak. Gainera, COVID arduraduna irakasleekin harremanetan egongo da jarraipen zuzena egiteko.

b) Bigarren agertokian

Asteazkenetik bi egongo dira: astelehena eta asteazkenetan ikasleen erdia etorriko da ikastetxera eta beste klase erdiak etxetik lan egingo du; astearte eta ostegunetan gainontzeko klase erdia etorriko da institutura eta beste klase erdiak etxetik lan egingo du; ostiraletan etxetik lan egingo dute ikasle guztiek.

Etxetik lan egiteko Classroom plataforma erabiliko da. Kontuan izan ikastetxearen ordutegia eta eskola-orduak mantendu egingo direla.

c) Hirugarren agertokian

Kontuan izan ikastetxearen ordutegia eta eskola-orduak mantendu egingo direla. Lanak *Classroom* bidez bidaliko dira eta bideokonferentziak ere egingo dira (*Meet* bidez): azalpenetarako, zalantzak argitzeko, talde-izaera ez galtzeko...

Dena delakoa behar izanez gero, helbide honetara idatzi: covidarduraduna@arratiabhi.net.